

## **IPUIN KONTALARIEN X. MARATOIA. Azaroaren 23an, Liburutegi nagusiko sotoan**

### **1. PELLO AÑORGA. *Irudi-liburuak kontatzen***



Album klasiko batzuk kontatuz gain, urte honetan Añorgak sortutako album batzuk kontatuko ditu (aurten argitaratuak).

Errituak, objektuak, kantzak, errimak, hitz-jolasak eta inprobisazioa lagun, haurren zein gurasoen arteko konplizitatea eta parte hartzea bilatuz, umorerik ederrenean.

**2-4 urte Ordua: 11:00etan**

### **2. AMAIA EGIDAZU eta SAROA BIKANDI. *Poltsikorako poemak. Poesia kontaketa.***



Poltsikorako poemak umeei bideratutako poesia kontaketa bat da, ahotsaz, gorputzaz eta irudiaz lagundua. Egidazu eta Bikandik sortutako poema ilustratu desberdinak jasotzen dituen bildumatxoa erabiliko dute oinarri moduan. Umeekin erritmoa, errima, hizkuntza eta ahozkotatasuna lantzeko baliabide bikainak dira. Kontakizunak istorio dibertigarriak eta sorpresak gordetzen ditu, haurrek istorio txiki bakoitza entzun, ikusi eta ukitzeko aukera izango dutelarik, beraien gozamererako.

**4-8 urte Ordua: 12:00etan.**

**3. DORLETA KORTAZAR. *Zaku bete ipuin.***



Zaku berria ipuin zaharrekin  
Zaku zaharra ipuin berriekin  
Ipuin bete zaku, zer daukagu?  
Zaku bete ipuin, zuk bai jakin!

**8-14 urte Ordua: 17:00etan.**

**4. MEJILLON TIGRE KOLEKTIBOA. Eider Adeletx eta Ane Zubeldia. *Hitz esana.* Spoken worda.**



Spoken word formatua darabilen poesia-emanaldia da HITZ ESANA. Zer da spoken word delakoa? Batez ere ingeles hiztunak diren herrialdeetan landutako poesia-molde konkretu bat: ahoz gora esateko idatzitako poesia; errepikari, erritmoari eta hitzen soinuari arreta berezia ematen dion poesia; entzulearekin zuzen-zuzenean komunikatu nahi duen poesia; gorputzaz ahazten ez den poesia; esan egiten den poesia; momentuan gertatzen den poesia.

Molde hori oinarritzat hartuta, Mejillon Tigre kolektiboak HITZ ESANA emanaldia osatu du: bi gorputz, 15 bat pieza indibidual, eta poesia emanalditik baino kontzertutik gertuago egon nahi duen formatua. Esateko ez baita gauza handirik behar: jasotako guztiarekin eta horren kontra aritzea. Zeharkatzen gaituzten bizipenak piezen muinean kokatzea: etxebizitza, sexu-indarkeria, gorpuztasuna, idoloak, erreferenteak. Hitz soilak eta, noizbehinka, musika nahasian, esandakoa eta beste guztia ere hel dakion entzuleari.

**Gazteak (+15) eta helduak.**

**Ordua: 18:00etan**